



Armak bete, begizta... su!

TOLOSA ▶ Euriak ez zuen lortu festa giroa zapuztea, eta San Joan eguneko ohiturazko ekitaldietan murgildu ziren tolosarrak atzo

III. HITZA TXAPELKETA ▶ Giro apartan jokatu ziren finalak Beotibarren; nagusietan Erroizenea-Apraiz bikoteak irabazi zuen ▶ 4-7



Goitik behera eta ezker-eskuin: eskopetarien burrunba, euriari desafio egiten, Trianguloan; HITZA Txapelketako finaletan, kadeteen artekoa; bordondantzariak, Santa Marian. J. A. / I. G.



UDAKO ORDUTEGI BERRIA!

Diseinua & Serigrafia
Plaza zaharra 10
Tolosa
Tallerra
943 67 49 90

ASTEAZKENA } 9:30 - 13:00
OSTEGUNA } 17:00 - 20:00
OSTIRALA }
LARUNBATA } 9:30 - 13:30

LEITZA ▶

Azpiroz eta Saralegi Madrilen dituzte, Grande Marlaskaren aurrean deklaratzeko zain

Herenegun atxilotu zituzten bi enpresaburu leitzarrak, ustez «iraultza zerga ordaintzeagatik»; inkomunikatuta daude ▶ 7

UZTURRETIK ▶ AMAIA AGIRRE

Urkiolatik San Joanera



Neskazahar baten irudia ikusi du ispiluan islatuta. Ispiluaren bestaldera dagoena bere burutzat ezagutzeak irrifarra garraztu egiten dio. Urteak dira ispiluak irrifarrez eta alai erantzun ez diola. Ez dago gustura bere buruarekin. Askotan nahiago luke

itsua izan itsusia dela ez ikustearren. Bera ez da itsusi ikusten, bera beti bezala ikusten da, baina badaki gaztetan mutilek hala ikusten zutela. Barreneko edertasuna erreparatzera eta harekin gozatzera iritsi zen bakar hark ere ihes egin zion hogei urteko neska batekin. Gorputza ezezik burua ere berak baino arinago zituela pentsatu izan du beti. Zuhaitza ere adarretatik hasten omen da usteltzen, eta bien arteko garai bateko harreman hura ere halaxe usteldu zen. Adarretatik. Adarreatatik. Lehenago kimatu beharko ziren.

Bihotza bi zati eta burua bihotzaren adabaki bihurtu zitzaizkionetik Urkiolara joaten da urtero erromes. San Antonioren nobio on bat emateko erreguka baino bera baino okerrago bizi direnen desgraziak entzunez kontsolamendu bila joaten da. Pertsona omen da harri berean estropozu behin baino gehiagotan egiten duena. Amontzen ari den honen nahita egiten du topo harri horrekin. Noizbait hari bueltaka ibili izanagatik topa egingo duelakoan. San Antonio, San Antonio, lehenago adarrak moztu banizkio! Hala aritzen da marmarrean.

Santuenganako duen fedeak apenas duen itxurazko senargai bat arrimatze-ko adina indar. Errezuan ere ondo baleki sikira!

San Antonioren mirarien zain asper-tuta, Lurdesera txangoa egiteko indarrik gabe... herenegun San Juan sutara bota zituen hogeita zazpi urte zituela betiko ahaztu eta abandonatu zuen mutilagun haren oroigarri guztiak. Haizeak eta denborak ezin ezabatu zezakeena suak erre dezala. Atzotik arinago eta ezberdin sentitzen da.

Igandetan ohi duen moduan Urki eta Juan zakurrekin osteratxo bat egitera atera da ispiluari irrifarre ezti bat eskaini ondoren.

DATUA ▶

61

gizarte eragilek «bain» esan diote euskarari Tolosaldean. Tolosaldeko 61 enpresek, saltokik, erakundek eta gizarte eragilek dute dagoeneko Bai Euskarari Ziurtagiria. *Bidean* dira horietako batzuk, *Guk zerbitzua euskaraz* eskaintzen dute beste batzuk, eta *Guk zerbitzua eta lana euskaraz* egiten dute beste hainbatek. Horietaz guztietaz gain, beste 170 eragilek sinatu dituzte euskararen alde pausoak ematen jarraitzeko konpromisoak.



Apirilean Ziurtagiria jaso zuten hainbat eragile. n. l.

KOMIKIA ▶

GORKA SALABERRIA



Alda ezazu zure etxetresna elektrikoa



Euskal energiaren erakundeko plan Renoverekin

75 euro abonatzeko dizkizugu ondorengo hauetan: garbigailua, baxera garbigailuak, konbiak, hozkailuak eta izozkailuak

Gudari, 7 • Tolosa • Tel./faxes: 943 65 46 50

iragarki laburrak ▶

LANPOSTUAK

Harreragileak, telefonistak, atezainak. Plazak libre. Eskakizuna: Eskola Agiria. Informazioa doan. 943 31 37 82.

Haur hezitzaileak. Plazak libre. Informa zaitetz. 943 31 37 82.

Administrari laguntzaileak. Anoeta, Beasain, Bergara, Sorraluze, Mutriku, Zizurkil eta Mendaroko

udaleketearako behar dira. 943 31 37 82.

Lanbideetako ofizialak. Pintoreak, mekanikoak, elektrikariak, arotzak, igeltseroak behar dira. Mugagabeko kontratua. 943 31 37 82.

Basozainak. Plazak libre Foru Aldundirako, udaletarako, Eusko Jaurilaritzarako. 943 31 37 82.

Garbitzaileak. Hurrengo deialdiak udaletarako, ikastetxeetarako.

Informazioa doan. 943 31 37 82.

Gidariak. Plaza libreak betetzeko behar dira. Informazioa doan. 943 31 37 82.

Langileak. Bergaran, Hernanin eta Errenterian peoiak, garbitzaileak eta lorezainak behar dituzte. Informazioa doan. 943 31 37 82.

Haur hezitzaileak. Lanpostu finkoak betetzeko plazak libre. Informazioa doan. 943 31 37 82.

IRITZIA ▶

MARI JOSE EZEIZABARRENA, ERIKA GONZALEZ, INA BENGOETXEA ETA AXUN AIERBE
(GIPUZKOAKO HERRIETATIK GASTEIZERAKO GARRAIO PUBLIKOA SUSTATZEKO TALDEA)

Bidaia e-zinezkoa, Gipuzkoako N-1eko herrietatik Gasteizera bidean

Ez gara ari zinemaz, nahiz eta Gasteizerako joan-etorria autobusez eginenez gero, egunean film pare ikusteko aukera ere baden.

Gezurra badirudi ere, 2006. urtean, Gasteizerako joan-etorria egiteko Gipuzkoako herri askotako jendeak egun-pasa egin behar izaten du, autorik (hartu nahi) ez badu, behintzat. Donostiatik zuzenean joateko aukera gehixeago badago ere, N-1eko herrietatik urria da eta eskasagoa, oraindik, Urola aldekoa. Ez dago modurik goizeko bederatzia aurretik Gasteizko lantoki edo ikastegi batean egoteko, ez eta Gasteiztik ilunabarreko zortzietatik aurrera abiatzeko ere, autoz ez bada. Beraz, jendea asterako bigarren bizitokia bilatu beharrean izaten da EAeko hiriburu administrati- boan.

Urruti egongo da Gasteiz orduan... pentsatuko du oraindik Gasteizen aste erdiko egun-pasa egitea egokitu ez zaion be- saindarrak, tolosarrak, lasartearrak. Ez, urruti ez, etxe inguruko mendi askotara igo eta jaisteko adina denbora behar da, be- rez, ordubete inguru. Hori egun-pasa al da, bada? Gasteizerako joan-etorria egiteko bai, eta alde gutxi dago, gainera, agiri batean zigilua jartzeko bakarrik, zein museo pare bat bisitatzea joan. Izan ere, autoga- beak ez dauka edozein ordutan abiatzeko biderik; eskubiderik ez edo aukerarik ez, hobeto esanda.

Garraio publikoa erabili beharra omen dago, autoa utzita... Baina zein? Non dago, bada, garraio publiko hori? Garraio publi- koa erabiliko genuke, bai! Balego! Aukera horretan pentsamendu pozgarriari bidea utzita, Gasteizera ikastera edo lanera maiz joan beharrean gertatzen den Gipuzkoako herrikoari honako arazo zerrenda luzea ateratzen zaio konturatzetarako, nabarmen arinduko litzaioketena, gutxieneko garraio publikoa izanez gero:

1. Ekonomian. Bigarren bizitokiaren gas- tuak, auto pribatua erabili beharra (nor- barena edo besterena), azken boladako erregaien igoera, seme edo alaba gazteak autoa beraien izenean aseguratze- ko zailtasunak... Egia da egoera hau arindu nahian- edo eska daitezkeen ikasleentzako bidaia- bekak badaudela, baina zoritxarrez, lagun- tzak jasotzeko baldintza ekonomikoan mugetan sar daitezkeen familia-kopurua oso-oso urria izanik, aukera honek ez du



Ilara luzeak N-1 errepidean, Tolosa parean, istripu baten ondorioz. N. LATABURU

gauza handirik arintzen gizarte mailan. Bost xentimoko pupua, eta laurdeneko trapa. Hutsa litzateke gastu hauek errenta- ren aitorpenerako kontuan hartuko balira, sikiera. Ondorioa argia da: ikasleen kasuan familiek ikasketengatik ordaindu be- harrekoa bi edo hiruhala egiten da; langileen kasuan, berriz, hileko soldata na- barmen murriztu.

2. Gizartea. Ordubeteko urruntasuna ezintasuna bihurtzen da, zenbait ikasketa asmo edo lanposturi baiezkoa esateko gara- raian. Sinesteak ere lanak ematen ditu gero! Zer esanik ez, lanez edo ikasketez aparte urteetan bestelako jarduera edo ohiuraren bat hartu dutenen kasuan: utza- zu 15 urteko musikari-instrumentuaren lan- keta, edo 10 urteko entrenamendua, Gas- teizen ikasteari edo sei hilabeteko lanari baiezkoa esatea bururatu zaizulako. Eta hori gutzia haur txikien edo senide edade- tuen ardurarik izan gabe... Lana eta familia bateragarriak izan daitezkeen ari omen dira lanean hainbat erakunde. Oso ondo, baina egin beharko dute gehixeago egun erdiko lana edo ikasketak hartzen dituztenek egun erdi hori Gasteizen eta beste erdia Gi- puzkoan egitea lortu nahi bada... Egun, ezinezkoa da.

3. Garraioa. Gaurko egunean dauden tren eta autobus zerbitzu urriekin ez dago modurik Gasteizen goizeko bederatzia aurretik izateko. Gero geroakoak, geltokitik behar duzun lekura joateko. Arratsaldeko hiruretarako egon nahi izanez gero, berriz, eguerdi aldera iristen den autobusen bat

da aukera bakarra. Itzultzeko, berriz, oke- rrago dago. Dauden autobus zerbitzu urriek Madril-Irun ibilbidea egiten dute- nez, gertatu ohi da Gasteizen igoko litzate- keen jende andanatik eserlekua gutxi bat- zuentzako bakarrik egotea... Zer egingo diogu, bada, ilunabarreko 20:15eko auto- busa beteta etxerako beste garraio-auke- rarik ez badago? Lasai! EAeko hiriburuan taxiak eta hotelak ere badaude-eta...

4. Ingurumena. Beste herrialde moderno batzuk bezain aurreratuak omen gaude kutsaduraren aurkako politikak gauza- tzen. Baliiteke, baina herrialde haietan ez da horrenbeste auto alferrik jartzen bide arriskutsuetan administrazio-hiriburutik 75-110 kilometrorra bizi diren herriarrik hiriburura lanera edo ikastera joan daite- zen. Irudika dezagun Euskadi N-1 errepidean autoen laurdenarekin...

5. Garapena. Aurrera doan herria omen gara. Baliiteke, arlo batzuetan. Oso harriga- rria gertatzen da herri garatuaren adierazga- rri nabarmena izan ohi den hiribururako garraio publikoan batere hobekuntzarik egin ez izana azkeneko urteotan. Izugarri- ko berrikuntza izan zen *lehendakari* izene- ko tren. Orain hogeita biren bat urte, or- dea. Aurrera doan herria omen...

Ez ote dute udalek, aldundiek, Jaurleri- tzak... Ez ote du 25 urte bete berri dituen erakunde garrantzizkoren batek ere ezer egitekorik kontu honetan? Bidaia ezinez- koa bidaia zinezkoa -ezen ez nahitaez zine- makoa- bihurtzea bidaiariak bideratu be- harko, beraz.

ESANAK ▶



NEREA AMILIBIA
MENDI LASTERKARIA

«Niri lasterka egitea gustatu egiten zait, hau da nire afizioa eta ahal dudan arte jarraituko dut. Ez dut nire bizitza lasterka egin gabe irudikatzen. Niretzat gozamena da»

'Aiurri'



AITOR MENDILUZE
BERTSOLARIA

«Oso gustura gaude ikastetxeekin izan ditugun harremanekin. Ahozkotasuna eta bertsolaritza proiektua martxan jartzen lagundu ziguten, eta elkarrekin ari gara. Haiengandik jaso dugu balantzea ere positiboa da, eta datorren ikasturtean denek jarraitzea espero dugu»

'Galtzaundi'

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

III. HITZA PILOTA TXAPELKETA ▶

Etorkizunera begira

Albizarako frontoian eta Tolosako Beotibarren jokatu zituzten pilotariak finalak; partida gogorak izan ziren oro har, eta maila handiko jokoa ikusi ahal izan dute norgehiagoketara joandako zaletuek

IMANOL GARCIA

III. HITZA Pilota Txapelketaren finalak jokatu ziren herenegun arratsaldean eta atzo. Txikiak ostiralean aritu ziren Albizarako frontoian, eta kadetetik nagusien maila arteko pilotariak Tolosako Beotibarren lehiatu ziren. Giro ederra nagusitu zen bi eszenatokietan eta kalitate handiko partidak ikusteko aukera izan zuen zaletuek.

Final guztiak izaten dira gogorak. Urduritasuna ez bada, aurkariaren jokoa, edo bestetan irabazteko izaten den presioa... Beti izaten da faktoreen bat partida zailak eta borrokatuak suertatzeko. Partidarik borrokatuena, hain zuzen ere, txikiak jokatu zutena izan zen. Azken unera arte, markagailuan atzetik zihoran bikoteak irabazteko aukerak zituela erakutsi zuten, baina fin aritu ziren Telletxea eta Mitxelena, eta azkenean beraiek lortu zuten maila guztiak garaipenik estuena.

Emozio gutxi izan zuena,



Finaletan jokatuak pilotarien eta txapelketaren antolaketan parte hartu dutenen taldeko argazkia. I. GARCIA

bestalde, nagusia izan zen. Bellosok eta Uhartek ezin izan zuten beraien jokoa erakutsi, eta Erroizeneak eta Apraizek aisean menperatu zituzten. Dirudienez, Uhartek ezkerrean munita zuten eta aurkariak horixe

baliatu zuten 22 tantoetara erraz iristeko.

Jubenilen mailan ere izan zuten emoziorik partidak. Aurrrera-Saiazeok 16-12 aurreratu ziren, baina Garraldak eta Iragik hamar tanto egin zituz-

ten jarraian, eta garaipena erdietsi zuten. Galarraga atzelariak mina hartu zuen eskuan, eta ezin izan zuten pilotarik gozatu partidaren azken zatian.

Beste neurketetan berdintasuna izan zen nagusi, batez ere

EMAITZAK ▶

Benjaminak.

Sagastume-Altuna 14
Tellebea-Mibelen 16

Alebinak.

Otamendi-Jaka 16
Imaz-Erostarbe 07

Infantilak.

Zinkunegi-Urbiet 11
Olano-Jaunarena 18

Kadeteak.

Galartza 18
Urrutia 13

Jubenilak.

Galarraga-Ojuel 16
Garralda-Iragi 22

Etorkizunekoak.

Larrañaga-Aranburu 13
Uniarde-Iza 22

Nagusiak.

Belloso-Uharte 06
Erroizeneak-Apraiz 22

partidaren hasieretan. Gero, azkenean irabazle izango zirenek maila hobea erakutsi zuten, eta ez zuten arriskuan ikusi beraien garaipena.

Aipatzekoa da gaztetxoaren artean Erik Jaka alebin lizartzarak eta Jon Jaunarena infantil leitzarrek erakutsitako maila bikaina. Beste pilotariei ia burua ateratzen zieten, eta kolpe handia erakutsi zuten biek ala biek. Etorkizunean zeresana eman dezakete pilotaren munduan.

Gozotegia eta okindegia

ECEIZA

Teilak eta Zigarrikoak

Pablo Gorosabel, 34 • Tel.: 943 655161 • San Frantzisko, 8 • Tel.: 943 651916 • TOLOSA

BELUR S.L.

garbitegi industrial

Tel.: 943 67 60 15 • mug.: 618 211 856
Okobio industrigunea, 51 • BELAUNTZA

MATXINA

Sanjoanak ondo pasa!!

Etxekotresna elektrikoan konponketa

Laskorain, 18 • TOLOSA • Tel.: 943 65 00 34

SEGUROS BILBAO

Zumardi

aholkularitza integrala

San Joan festa zoriontsuak opa dizkizu

Laskorain, 8 behe • TOLOSA
Tel.: 943 65 18 78 • Tel./Faxa: 943 65 18 77

Sam

Kartazalak Poltsak

Usabal auzoa, 126 • 20400 TOLOSA
Tel.: 943 67 40 00 • Faxe: 943 67 55 44 • sam@sam-sobres.com

QUARRETTAL

XOILAN, S.L.

- garbiketa orokorrak lokal komertzialen mantenua
- bulegoak • fabrikak
- ikastetxeak etabar
- lur zoruei distira eman
- injekzio sistemak moketen garbiketa eta tapizen garbiketa orokorrean

Tel.-Faxe: 943 67 06 26
659 04 57 65
Igarondo, 1-behea • TOLOSA

IKATZA

PINTXOAK - BOKATAK ANOAK PLATER KONBINATUAK

Plaza Berria, 6 • 20400 Tolosa
Tel.: 943 67 49 13

ILSAMINDEGIKO CAJAK

Marcel

ESERIZINTZA

Santa Clara, 9
TOLOSA
943 671930

HERNIALDE JATEKETA

Ono pasa Jaiak!

martin jose iraoia, 10 • tolosa
tel.: 943 67 56 54

ZERBITZU BULEGOA AIXA

Nominak - Kontabilitateak Zergak - Autonomoak

Pablo Gorosabel, 4 - 1. esk
TOLOSA
Tel.: 943 65 03 03
Faxe.: 943 65 22 22
mjhuartez@euskalnet.net

66

Bokatak, Pintxoak eta Plater Konbinatuak, ugari.

-- Zetan irekita --

jai zoriontsuak pasa!

M.J. Iraola, 1 • TOLOSA
Tel.: 943 67 19 37

Dietetika eta Belardenda ZAINBERRI

Pablo Gorosabel, 6 • Tel.: 943 65 21 86 • 20400 TOLOSA

GARIKOITZ ERROIZENEA ▶ NAGUSIAK. HERNANI

«Uste baino errazagoa izan da partida»

Lehenengo HITZA Pilota Txapelketa jokatu du hernaniarrak, eta bertan txapela lortu du. Ez omen da «oso partida polita izan».

Nola ikusi duzu finala?

Uste baino errazagoa izan da. Ez dugu beste munduko gauzik egin. Beraiek gaizki ibili dira eta guk egin duguna da seguru jokatu.

Horrela espero al zenuten?

Ez, pixka bat gogorxeagoa espero genuen. Faboritorik ez da izaten pilotan jokatzen hasi aurretik. Partida bakoitza mundu bat da.

Bazenuten aurkarien berri?

Bai. Hemen ibiltzen garenak denak elkar ezagutzen dugu, eta ez dago sekretu handirik.

Partida prestatuta zeneukaten aurkarien arabera?

Azken finean gu gure joko egitera ateratzen gara eta ondo ateratzen bada, hobeto. Zertan egin dute huts besteek?

Beraiek berehala irabazten hasi dira, eta guk segituan harrrapatu ditugu. Gero tanto batzuetan huts egin dute eta partidatik atera dira, urduri jarri dira.

Zeure burua nola ikusi duzu?

Ondo, behartu gabe aritu naiz.



Garikoitz Erroizenea. I. GARCIA



Alex Apraiz. I. GARCIA

ALEX APRAIZ ▶ NAGUSIAK. GERNIKA

«Besteak hustutzen joan dira partidan zehar»

Gernikako atzelaria Asegarce-ren deia zain dago profesio-naletan debuta egiteko.

Nola ikusi duzu finala?

Borrokatuagoa izango zela uste nuen. Besteak hasieran ondo aritu dira, baina gero hustutzen joan dira eta, gainera, Gari bikotea ondo aritu da.

Ez dute gehiegi asmatu aurkariak.

Uharterk ezkerrean ikututa zuen eta hori bilatzen aritu gara partidari, eta hori izan da gakoa. Uharterk huts egiten zuen eta Beloso kutsatu egin da. Gu gurera joan gara.

Beste bikoteak gehiago egin-

go zuela espero zenuten.

Dituzten izenak izanda, Uharte jotzailea da eta Bellosok ere bizi ematen dio, pentsatzen genuen batez ere partida luzeagoa izango zela, baina motza jokatzera, eta ondo aritu gara.

Nola joan dira txapelketako partidak?

Lasarekin hasi nintzen jokatzen, baina gero Elgetako Txapelketan jokatu zuen eta Erroizenea etorri zen nirekin batera jokatzera, eta ondo aritu gara.

Lehenengo HITZA Txapelketa da aurtengoa?
Ez. Iaz ere jokatu genuen, baina finalerdietan gelditu ginen.

I. GARCIA

Irabazleen hitzak jaso ditugu partida bukatu eta gero, haien irudipenen berri izateko.

TELLETXEA

BENJAMINA. IGANTZI

«Beste bikotea indartsuagoa zen»



«Oso gustura gaude. Ez genuen espero irabaztea. Beste bikotea indartsuagoa zen. Guk gure joko ondo egin dugu».

BEÑAT MITXELENA

BENJAMINA. BERA

«Hutsegite gutxiago egin ditugu»



«Guk agian hutsegite gutxiago egin ditugu eta horregatik irabazi dugu finala. Gogorra izan da, eta gustura gaude egin dugun txapelketarekin».

ERIK JAKA

ALEBINA. LIZARTZA

«Finaletan denei errespetatu behar zaie»



«Finalerdia zailagoa ikusten nuen baina hau ere partida zaila izan da. Finaletan aurkari guztiak errespetatu behar dira».

JULEN OTAMENDI

ALEBINA. AMEZKETA

«Estuago ibili ginen finalerdiko partidari»



«Partida zaila ikusten genuen, baina ondo atera zaigu. Agian guk gehixeago asmatu dugu. Estuago ibili ginen finalerdiko partidari».

JULEN OLANO

INFANTILA. LEITZA

«Uste baino tanto gutxiago egin dituzte»



«Pentsatzen genuen irabazteko aukerak genituela, baina aurkariak uste genuena baino tanto gutxiago egin dituzte».

JON JAUNARENA

INFANTILA. LEITZA

«Azkenean ongi irabazi dugu»



«Hasieran nahiko ongi hasi gara irabazten, gero pixka bat harrrapatu gaituzte eta azkenean ongi irabazi dugu. Bagenekien aurkari zailak zirela eta zaila izango genuela, baina irabaztea lortu dugu eta oso gustura gaude».

ASIER GALARTZA

KADETEA. IRURTZUN

«Partida gogorra izan da»



«Partida gogorra izan da. Pilotak nahiko ibiltzen ziren eta bero asko egiten zuen frontoian. Espero nuen irabaztea, aurretik irabazi diodalako, baina partidatik jokatu egin behar dira».

IMANOL GARRALDA

JUBENILA. HUARTE

«Partida konplikatu izan da»



«Partida konplikatu izan da. Hasieran abantaila hartu digute, baina amaieran tanto guztiak segidan egin ditugu eta irabaztea lortu dugu. Gure

asmoa ahal genuen ondoen jokatzea zen eta azkenean garai-pena lortu dugu».

JULEN IRAGI

JUBENILA. ARLEGI

«Garraldak atera du partida aurrera»



«Partida zaila izan da eta Garraldak atera du aurrera. Nik ez dut pilota gozatu eta saiatu naiz ezker paretara pilota hurbiltzen, baina ez dut asmatu. Besteen atzelariari zerbait gertatu zaio eskuan, pilota errazak galdu dituelako».

IÑAKI IZA

ETORKIZUNEOA. ZORNOTZA

«Nahiko gozatu dut pilota»



«Partida guztian aurretik joan gara, baina nahiz eta hiru tantogatik aurreratu haiek hor zeuden beti. Azkenaldian oso gustura ari naiz eta gaur [atzo] ere nahiko gozatu dut pilota».

ROBERT URIARTE

ETORKIZUNEOA. ABADINO

«Bigarren zatia errazagoa izan da»



«Hasieran nahiko gogorra izan da, hamaikagarren tantora arte. Partidaren bigarren zatian aurrera joan gara eta errazagoa izan da. Airez gustatzen zait sartzea eta tantoak egiten saiatu naiz. Aurretik Beotibar ezagutzen nuen, eta gustura aritu naiz».

KLISK
Argazki Erreportaiak
Argazki digitalak
0,19 eurotik
0,32 eurotara
San Franzisko, 6
943 11 85 45 • TOLOSA

«Xirimiri» Ondo ibili!!
Txokolategia
Errementari kalea, 40
20400 Tolosa
Telef. 943 67 52 23

Tolosaldea BUS S.L. Festa onak pasa Sanjoanetan!
Ibilaldiak • Ezteiak Agurafariak • Kastetxeak Kirol taldeak
Tel eta faxa: 943 650621 • mug.: 619 723 819 • Donostia EtoB,9 • TOLOSA

SAN JOAN JAIAK

Sanjoan suek ura ekarri dute

Euriak ekitaldiak lardaskatu baditu ere, San Joan jaietako hango eta hemengo festek aurrera jarraitu dute, bezperako su-ketik egunean bertako ospakizunetara

JAIONE ASTIBIA

Aurtengo uda sarrerako aurreneko festa diren sanjoanek eguraldia, kasu honetan euria, dute protagonistenetako bat. Aurtoko egunetan egin duen giro sargorriak txigortuta zituhen alorretara eta soroetara, agian San Joan suen eta atarietan jarben diren lizar adarren sorginberitzo eraginez, jendearen eta lurrazen esanriak furaio egitiko modua izan daitekeela pentsatu eta festak ez zuen behera egin, ordea. Lardaskatu bai, baina zapuztu ez.

Berdantzabart Tolosaldeko eta Leitzaldeko herrietan Sanjoan suak bitu zituzten, herri-ariarik eta gero. Leitzan kasu, ia 1.100 lagun bildu ziren plaza albatzeko euriak eraso zituzten. Inakotzkatik ahal zuen lekura joan behar izan bazuten ere. Sua bizterako, ordea, berri ere hantse bildu zen jendetza.

Atzo, berri, hainbat herritako jas egin nagusia ospatu zuten. Hala, Tolosan, San Joanen izenarekin prozesioa egin zuten eguerdian. Santa Maria plazan, aurretik ikuskizun dotore bezain hunkigarria eskaini zuen erraldoien komparsak: San Joan eguneko ekitaldi honetan aurreneko alduz parte hartu baituzten, ikuslearen tralo artean. Bordondantzariak ere trukan aski dantztatu zuten. Eta nola ez, eskopetarien komparnia desberdinek, herriko kaleak polborra usain eta kez bete zituzten, alardea egin aurretik eta ondoren.

Bestalde, Abaltzisketan, Anoetan eta Belauntzan ere jaietan daude. Aurrenekoan, esateko, tokan aritu ziren. Anoetan, jaiabatuaren eguna zuten atzokoak, eta Belauntzan, hamabaitako egun zuten. Kasu honetan, arratsaldeko dantziarik bertan behera gelditu ziren euriagatik, baina tortilla lehiaketa egitekoak ziren.



Erraldoiak. Dotore dantztatu zuten dultzareroen doinuaz, sanjoanetan ere. JAIONE ASTIBIA



Eskopetariak. 13 korpainia altera ziren. J. A.



Musika Banda. Entzuleen belarriak goxatuz. J. A.



Dantzariak. Sanjoan doinuarekin arin asko ibili ziren. J. ASTIBIA



Sua, Leitzan. Hiru jauri eginez txipitri barrak usatu eta osasuna ekarri. J. A.

in gremioen koordinazioa

ingurteriarik & igelbenaok merkariak & piztasak antzokak

ekaitza & dekontzariak zozkak & lotok alizariak & eskalkiak

Nafarroa erabakia, 12 20400 Tolosa Tel.: 943 65 36 40

aldama_tapia aholkulariak

Tel.: 943 65 03 75 Faxa: 943 65 52 06

Fonuen Etorbidea, 7 • 20400_TOLOSA_Gipuzkoa gtoiosa@aldamapia.com • www.aldamapia.com

iragarki laburrak

LANA
Zerbitzaria. Zerbitzaria behar da Tolosaldeko taberna baterako. Laguneg osorako, 677 39 99 34.

Fabernaria. Vilatorrada taberna baterako merka eskakiduna behar da, 15:30etik 22:30era. Iragardetan jar. 650 48 79 34.

Tabernaria. Nekia eskakiduna behar da 4 orduz lan egiteko. Tolosaldean. Eskarmentuduna. 635 74 52 91.

FESTAK ONDO PASA!

TOLARGI

Tolosako argia, jantziak, la bot de Tolosa, Tu bot

Pablo Gorosabel kalea, 34 B. • TOLOSA
Tel.: 943 65 00 16 • Faxa: 943 65 00 65
Telf.: matxurak: 610 44 00 88
E-posta: tolargi@tolargi.com
www.tolargi.com

TOLOSAGAJA

Tolosako energia. Jantziak. Energia de Tolosa. Tu energia

Arrostegietan, 18 • TOLOSA
Tel.: 943 67 53 20 • Faxa: 943 67 55 11



Abaltzisketa. Meza eta trikibax emanaldiaren ondoren, tokan aritu ziren zimterioan bertan, herriar asko bertaratu zelarik. JAIONE ASTIBIA



Anoeta. Atzo jaiabatuaren eguna izaki, dantzariak ikusi ondoren, herriko jateko batean bazkaria egin zuten. Ondoren, dantzialdia. J. A.



Belauntza. Herriko tabernan hamabaitakoa egitera bildu ziren herriar mardokak. J. ASTIBIA

ZABALA KAFEAK

Nafarroa etorb. 2 TOLOSA Tel.: 943 65 47 85

Neguri plaza, 2 ORDIZIA Tel.: 943 88 29 88

OSKI

Nafarroa etorb. 11 • Tel.: 943 65 12 64

Emendeko Auzoa, 5 Tel.: 943 65 66 21

JANTZIAK • • • • • DINETAKOAK TOLOSA • • • • • GAZTEA

LEITZA • ATXILOKETAK

Azpiroz eta Saralegi Madrilen dituzte Grande Marlaskaren aurrean deklaratzeko zain

Herenegun atxilotu zituzten bi enpresaburu leitzarrak, ustez «iraultza zerga ordaintzeagatik» eta inkunonikatuta dauzkate

ERREDAKZIOA

Atzo arratsaldean eraman zituzten Madrilera Azpiroz eta Saralegi, Grande Marlaskaren aginduz herenegun atxilotu zituzten bi enpresaburu leitzarrak: azken berrien ariora, bihar pasatuko omen dira Espainiako Auztegi Nazionalako epaile horren aurrean.

Juan Mari Saralegi eta Jose Iñaberrri Azpiroz herenegun atxilotu zituzten Espainiako Polizia Grande Marlaskaren aginduz —zaharkit non eta noiz egin zituzten ez da jakina—, ustez, «ETAr iraultza zerga delako ordaindu izanagatik, «kolaborazio» egotzita, beti ere ageriak digital desberdinetako informazioaren ariora. Orduan inkunonikatuta eduki dituzte bi atxilotu hauek.

Atxilotuta hauek, lehenago asetsarben egindako 12 euakal herriarrentan atxilotuak lortu dituzte: operazio hartan egindako maldaketan, ustez aurkitutako dokumentazioan inarrituta egindakoak omen direlako. Atzo berri agertzek eta he-

dabideek polizi iturriak atatu zituztenez, «asteartean atxilo hartu zuten Jose Antonio Caurren etxean aurkitutako dokumentazioan, bi enpresaburuek ustez ETAr egindako 64.000 euroko ordainketa baten ordain-egitiaz atzeman zuten.

Dirudienez, gainera, zuzenean Auztegi Nazionalako polizia judizialak etorri ziren atxilotutako egitera, Grande Marlaska epailearen zuzeneko aginduetara atzoko Herenegun atxilotu zituztenez geroztik, atzo eguerdi arte dirudienez, Iruñeko Espainiako Polizia Buruzagitzan Nagusiarren egoitza eduki zituzten bi lagunak, hain justu Madrilera eraman zituzten arte. Bitartean herrietan eta gero ere inkunonikatuta dauzkate, ordea, ez da bestelako zehaztaurik jakiterik izan.

Enpresaburuen aurkako atxilotuak badute aurrekariak Euzkalki Herrian, 2003ko albotan. H. Antzotegiko enpresa bateko gertatutako atxilotu zuten, orduan Baltasar Garzon aginduz 2004ko hilabetean, epaile beraren esanera, Tolosako Areizaga hartu zuten atxilotu, biak «karpurik gabeko» aske gertatu ziren, bere gurazian.

Eta geroztik, hainbat sukaldari ere eramanarazi zituzten, gai bereziki deklaratuera. Azpiroz eta Saralegi erakuntzako enpresa baten jabe dira, Azysa S. L. izenekoa. Duela 30 bat urte sortu zuten Leitzan. Baina, azken urteetan enpresa handitu eta hedatu zelarik, egun Iruñerrian, Zizur Nagusian eta, du egoitza zentrala, Gehiabat Nafarroako herri-lanetan aritzen dira lanean.

adoberriko eshaintza handia

PortAventura 188€

Fiteroko Baina Etxea 237€

Gran Canaria 685€

Caledonia Aparthotelek 65€

Picos de Europa 94€

Burgos 53€

ERDEKI



GARI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS

Lanbide Heziketa Etorkizuna eraikitzen

Berritu edo hil dio aspaldiko esera batek. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak horixe pentsatu zuen, Lanbide Heziketarako berrikuntza zentro bat sortu behar zela erabaki zuenean. Buzuari hainbat buelta eman eta gero, Errenteriko (Gipuzkoa) Zamañabide ikastetxea izandakoan zahaldu zuten, orain urte bat. Tknika izena jarri zioten. Bertan, Lanbide Heziketako berrikuntzarekin eta irakasleen prestakuntzarekin zerkusia duten programa guztiak garatzen dituzte.

Jose Mari Eiola Tknikako zuzendariak azaldu duenez, Lanbide Heziketarekin zerkusia daukan berrikuntza zentro bat sortzeko asmoa aspaldikoa da. Hezkuntza Sailak ikusten zuten berrikuntza leku jakin batean batzeko premia zegoela. Gainera, une horretan Zamañabide ikastetxea hutsik geratu zen, eta bi aldiz pentsatu gabe, Errenteriarren alde egin zuten. «Konstuan izan behar da ikastetxe batzuk berez direla dinamikoak, beste batzuk, ordea, ez. Gero, berrikuntza egiten da unibertsitatean, enpresa aurreratu batzuetan eta Lanbide Heziketako ikastetxeetan. Horiek ezin genituen sakabanatuta edukiti, eta guztiak zentro batean elkartzea aproposena zela iruditu zitzaigun». Hala, berrikuntza non egiten den jakitea izaten da lehenengo lana, gero Tknikara eramateko.

Era berean, kalitatean eragin nahi bazen, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Lanbide Heziketa sistemak berrikuntza zentro batean izan behar zuela pentsatu zuten Hezikuntza Saileko arduradunek. «Gure Lanbide Heziketako sistemak eraginkorra izan nahi bada, ezin ditugu berrikuntzako frankotiratzaile moduko batzuk sakabanatuta



Lanbide Heziketarako zentroko laborategi bat Tknika. ALECCO CABELLADA / ARGAZKI PRESBI

Bide berriak zabaltzen

Lanbide Heziketako berrikuntza proiektuak garatzen dituzte orain urtebete inauguratu zuten Tknika zentroan

izan gure ikastetxeetan. Sistemak berak bultzatu behar du ikastetxeetan berrikuntza programekin lan egitea.

Urtebeteko ibilbidean, hainbat berrikuntza proiektu lantzen ari dira Tknikan. Eiolak

hainbat adibide jarri ditu: abiadura handiko mekanizazioak, energia berriztagarriei buruzkoak, akuikulturakoa, hiru dimentsioko errealtate birtuala... «Urtebeteko jardana izateko, gure ebaluazioa bikaina da.

Oso gustura gaude Tknika ematen ari denarekin», azaldu du Eiolak. Berrak bakarrik ez, gainerako ikastetxeek ere ondo hartu dutela azpimarratu du: «Hasieran, ikastetxeek uste zuten Tknika berarekin lehian ari-

tuko zen beste ikastetxe bat izango zela, baina aurten argi ikusi dute gure asmoa ikastetxe guztiei laguntzea dela. Hala, orain arte berrikuntzan aritu gabe zudekan orain horretan dibardute, nora jo ez dakitenean erreferentzia bat dute laiko», gaineratu du.

180 lagun berrikuntzan lanean

Egun, 30 pertsona ari dira Tknikan beharrez, dinamizatzaile moduan. Baina hor ez da bukatzen berrikuntzarako ezarrita dauden sare. Dinamizatzaile bakoitzak ikastetxe bakoitzeko 5-6 irakasle izaten ditu bere ardurpean, eta horiek prestakuntza arduratzen da. 5-6 pertsona horiek ikastetxeak jarraitu irakasleak dira. Irakasle batzuk Tknikara bidaltzeko eskatzen die Hezikuntza Sailak, berrikuntza proiektuetan lan egiteko. Lanaldi erdian horretaz arduratzen dira. «Irakasle horiek ikastetxeetako beste irakasleei prestatzen laguntzea da gure asmoa. Eta horrela, enpresa guztietara iritsi nahi dugu, etengabe prestakuntza-erbitartez.

Tknikan garatzen ari diren berrikuntza programen barruan, egun e-learning edo urrutiko irakasuntza programa lantzen ari dira, etorkizunean Lanbide Heziketako prestakuntza Internetez edo beste biko teknologia berriak erabilia egin ahal izateko.

Gainera, Lanbide Heziketako ikasketak amaitu dituzten ikasleek urte eta erdiko epea daukate beren enpresa sortzeko. Ikastetxeetako materiala eta irakasleentzako laguntza izaten dute Urrats Bat programaren bidez. Eiolak zehaztu duenez, 40 enpresa sortzeko proiektuak aurrera jarraitzen dute, eta hurrengo urtean beste edozein enpresa bezala arituko dira lanean.

Kalitatearen zaindari

Lanbide Heziketako ikastetxeak autoebaluazio programak ezartzera animatzeaz gainera, enpresetako langileen lanbide gaitasuna ebaluatzen du Kalitatearen Agentziak

1995etik, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak ardurua handia izan du Lanbide Heziketako ikastetxeetan eta haien jarduerak guztietan kalitatea bermatzen. Lehenengo kalitatearen Behatokia sortu zuen, gero Ziurtagiriaren Institutua... «Baina hori gortia zintziak peratzen zen, eta Kalitatearen Agentzia sortzea erabaki zuen», azaldu du Imanol Lopez Lacalle Lanbide Heziketako Kalitatearen eta Gaitasuna Ebaluatzeko Euskal Agentziako zuzendariak.

Kalitatearen Agentziak hiru esparrutan egiten du lan: Lanbide Heziketako ikastetxeen kalitatea, enpresetako langile lanbide gaitasuna egiaztatzeko egitura eta ziurtagiriak banatzea. Besteak beste, ikastetxeak kalitate sistemak indarrean jartzea, autoebaluazioak egitea edo eredu berriak ezartzera animatzen ditu Agentziak. «Azkenean, gure Lanbide Heziketako sistema osoa neurtu behar dugu, eta horretarako, ikastetxe bakoitzeko adierazle-

ak batu behar ditugu». Lopez Lacallek gaineratu duenez, aurten Lanbide Heziketako bost ikastetxeek Erresuma Batuko sistema baten bidez garatutako ziurtagiria eskuratu dute, eta beste hamar ikastetxe datoren urtean hori lortzeko lanean ari dira.

Hala ere, hori ez da Kalitatearen Agentziak egiten duen lan bakarra. 2004. urteko urrian, enpresetan jarduten duten langi-

leen lanbide gaitasuna egiaztatzeko ziurtagiriak banatzen hasi ziren. «Gerta liteke langile batek soldatzen jakitea baina titulurik ez izatea. Guk zer dakien ikusten dugu, eta daukan hutsuneak ikastaro baten bidez konpontzen dizkiogu. Zeretik hasitako batek 200 orduko ikastaro beharok luke, baina langile horrek nahikoa izan dezake 40 orduko ikastaro batekin».

Lanbide gaitasuna egiaztatzeko urte eta erdiko ibilbide laburrean, 3.500 pertsona informatu ditu Kalitatearen Agentziak, eta aitortze prozesuan 1.600 langile sartu dira. Horietatik 17 langilek titulu osoa lortu dutela na-

barmentu du Lopez Lacallek. Izan ere, langileek aukera dute tituluzaren zati bat eskuratzeko. «Oraindik sistema egokitzen eta sendotzen ari gara. Garrantzitsua da sindikatuek eta enpresaburuiek hiru guztiau ulertzea. Langile baten ahalgimena aitortu egin behar da, eta horretarako dago ziurtagiriak».

Kalitatearen Agentziaren barruan bederatzi lagun daude lanean, baina hortik sare garrantzitsua daukate osatua. Langileen gaitasuna egiaztatzeko egiturari, esaterako, lagun askok parte hartu behar du. «Sistema honen bidez, posible da hamaika titulu lortzea, zatika edo oso-osorik. Orduan, hamaika taide daukagun lanean, eta horiek hiru lurraldeetatik magitzen dira». Gainera, 70 aholkulari eta 55 ikastetxe informatzaile dauka Kalitatearen Agentziak.



Lanbide Heziketako Kalitatearen eta Gaitasuna Ebaluatzeko Euskal Agentziak
Agencia Vasca para la Evaluación de la Competencia y la Calidad de la Formación Profesional
Departamento de Formación Profesional, Investigación Tecnológica y Transferencia de Resultados de Investigación Científica



GARI GARZALDE / ARIELAZI PRESS

IÑAKI MUJIKAK Eusko Jaurlaritzako Lanbide Heziketako sailburuordea

«Industria sektorean, dauzkagun baino ikasle gehiago behar ditugu»

Lanbide Heziketa gazteriarentzat irtenbide ona dela uste du Mujikak. Emakumeak industrian murgiltzera gonbidatu ditu

Iñaki Mujika Eusko Jaurlaritzako Lanbide Heziketako sailburuordeak ondo ezagutzen du esku artean daukana. Lanbide Heziketako ikasle eta ikastetzeko zuzendari izanda dago, Hezkuntza Sailaren ardurak izan aurretik. Lanbide Heziketako Euskal Planaren gauzatzeko helburua dauka esku artean.

Lanbide Heziketako Euskal Planarekin gobernatu hasia ematen dion ikaslearen prestakuntzari. Zer egiten ari zureta onor haren? Hezkuntza Sailak bazuelan irakasleak prestatzeko programa berezi bat, baina sailburuordea hau sortu zenetik guk etengabeko prestakuntzarako zuzendari-tza daukagu, eta horren barruan, programa berezi bat prestatu dugu Lanbide Heziketako ikasleentzat. Garrantzitsua da zuzendari-tzarako kideak ondo prestatzea, eta haientzat programa berezi bat ari gara lantzen. Bestalde, irakasleriarentzat badaukagu

beste programa bat antolatuta. Gai teknologikoa, informazioko teknologia berriak, lan prezioa eta hizkuntzen formazioa jasotzen dituen irakasleentzako programa horrek. Izan ere, prestakuntza zikloak hiru hizkuntzatan lantzeko asmoa daukagu.

Nola lanuz da Lanbide Heziketako eskolak hiru hizkuntzatan erabiltzen dituzte?

Orain arte sistemak A eredu edo B eredu eskaintzen zituen. Daukagun eskaintzarekin eta daukagun ikasle kopuruarekin batuzaten gertatzen da ezin osatu ahal izatea taldea. Izatik hasi ginen eredu misto batekin. A eta D arteko eredu bat atera genuen, eta D ereduaren ikasketak egin nahi dituztenei gutxienez bermatzen zaie gai teknologiko- eta moduluak euskaraz egin ahal izatea. Zeharkako modulu batzuk, eta taldea osatzeko, gaztelaniar eskaintzen dira. Orain hirugarren hizkuntzarekin ari gara. Aurreko eredu hartuta,

pentsetan ari gara ingelesa ere sartzea modulu batzuetan, baina zenbait tokitan frantsesa izan daiteke. Gai teknologiko asko ingelesez azaltzen dira, eta gure ikasleak kopora ere joaten dira makineria muntatzera eta mantentze lanak egitera; orduan, hirugarren hizkuntza jakitea komeni zio. Gure asmoa taldea osatzen joatea da, ikasleek ere gutxienezko maila bat izatea behar delako. Gu orain hasiko gara irakasleak prestatzen.

Azken urteetan azaldu hazi da Lanbide Heziketako egiten duen enbarkamendua. Nerekin baldinako zureta hurrengo urteotara? Irakasleak prestatu daukagun ikastetxe guztietan aholkua eman diegu prestakuntza ziklo horiek euskaraz eskaintzeko. Taldeak osatzeko aukera ez dagoenez, gutxienez talde mistoak osatu behar dira. Noraino iritsiko garen? Pizkanaka jendea ohartzen ari da abalegin handia egiten ari garela. Teknologikoki goi puntan gaude eta hor man-

tendu behar gara, eta, bestalde, hizkuntzen kontuan ere aurrera egin behar dugu. Eskertu besterik ezin dat egin irakasleria eta ikastetxeak egiten ari diren aholkugina.

Besta material alditik ere Heziketako Sailak enbarkamendua du zureta, zureta?

Hitzarmena daukagu Lanekirekin, Lanbide Heziketako ikasle materiala euskaraz prestatzeko. Urterik urtera, material dezente dago irakasleen eta ikasleen esku www.jakinbati.com web orrialdean.

Nola bertutuko dituzte teknologia berriak Lanbide Heziketako eta ikaslearen prestakuntzarako?

Teknikatik zuzenduta, ikastetxeetan daukagun informatika arduradunak eta dinamizatzaileak. Hau da, ikastetxeetan dagoen tresneria guztia erabiliz egin behar da, eta irakasleek ikasi behar dute hori erabiltzen, metodologia ezberdinekin, aurrera egin ahal izateko. Ikastetxe gehienak ondo hornituta daude tresneria aldetik. Arbel digitalak edo bideokomunikazioak egiteko tresneria guztia dute, esaterako. Orain dinamizatzaileak ditugu ikastetxeetan, hori irakasle guztiek erabili ahal izateko.

Enpresa eta ikastetxeen arteko lotura sendotu egin nahi dugu, etengabeko prestakuntzaren bitartez. Nola egingo dugu hori?

Etengabeko prestakuntza Hobetuz-en bitartez egin nahi dugu. Hor badaukagu zerbait hobetu beharra, eskumenak ez dauzkagunik orainge. Hala ere, aurrera ateratzeko asmoa dago Hobetuz-en bitartez. Langileria kontzientziatu nahi dugu, eta etengabeko prestakuntzari sartu behar dela ulertarazi nahi diegu. Pizkanaka bere gutasunak berritzen joan behar da langileak, eta horren ardurak berea dela jakin behar du. Gure ikastetxeetan horretarako aukera daukagu ikasi behar du.

Langileria behar beste dago ikastetxeetan?

Gure ikastetxeak sari joaten dira enpresa txikieta prestakuntza planak eskaintzen. Gehiago edo gutxiago, gure langileak kontzientziatu daude, eta badaiteke etengabe ibili behar direla prestatzen. Hala ere, egia da oraindik gehiago ahalegindu behar garela. Gure asmoa da ikastetxeak etengabeko prestakuntzako dinamizatzaileak izatea, horiek gure enpresetara gero eta gehiago joaten.

Kalitate hitza erabili nahi duzu. Lanbide Heziketako kalitateak ematen du horretarako? Kalitatearen egitea izan da azken 10 urteetan lanbide heziketan egin den apustu serioenetakoa. Orainse Danimarkako sindikatuaren ordezkariekin egon nahi, eta harrizta geratu dira hementxo Lanbide Heziketako kalitatea nola zaintzen den ikasi dutenengan. Enpresek daukagun lotura handia ere oso interesgarria iruditu zio.

Enbarkamendua Lanbide Heziketako sartzen duzutenen ari zureta apaldu.

Industria sektorean daukagun ikasleak oso ondo ari dira bertutuz lan munduan. Daukagun baino ikasle gehiago behar ditugu. Gure ikaslearen herena emakumeak dira, baina gehienbat beste prestakuntza zikloetan daude. Ziklo horiek industria sektoreak baino txertatze maila txikiagoa dute. Horregatik, industria sektoreko zikloak egitea animatu nahi ditugu. Industria sektorea asko aldatu da azken urteotan, zerikusirik ez dauka neska horien gurasoek Lanbide Heziketaz izan dezaketen irudiarik, eta apustu sendoa eginda daukagu emakumeak industria sektorean ekartzeko. Jendea behar dugu, eta espediente akademiko onena dutenak neska dira.

Industria sektoreko zikloak ematen dituzten emakumeak ari zureta apaldu?

Bai. Batzuek esaten dute enpresek ez dituztelako emakumeak kontratatuko. Baina enpresaburuek sarritan esaten dute ondo prestatutako norbait etortzen bazaie kontratatzen dutela. Nola ez ba, beharra dute eta!

Akatsak ezagutuz, aurrera

Lanbide Heziketako ikastetxeek kalitate sistemaren bat ezarrita dute, dituzten hutsuneak bilatzeko eta konpontzeko asmoarekin

Hamar urtean ezagutzen ditudan ikastetxeek aldatuta izugarriak izan dituzte. Zergatik, eta kalitate sistemak ezartzeagatik». Inaki Mujika Eusko Jaurlaritzako Lanbide Heziketa sailburuordeak ez dauka zalantzarik kalitate eta autoebaluazio programak ezartzearen onurez. Izan ere, bera

izan da sustatzaile nagusietako bat. Lanbide Heziketako ikastetxeek kalitate sistemak ezartzen dituztenetik izan dituzten aldaketek hitz egitean, Mujikak adibideak bata bestearen atzetik jartzen ditu. Ikastetxeen programazioa aipatu du lehenengo. Lehen, urtero programazio berbera zeukaten; orain, ordea,

eguneratuta izaten dituzte. Ikasleen ebaluaketa ere aldatu egin da. Lehen, irakasle bakoitzak bere sistema zeukan ikasleek urtean zehar egindako lana ebaluatzeko. Orain, guztiak sistema bera erabiltzen dute, kalibratua eta erabiltzaile erabilita. Ikastetxeetan badira beste aldatuta batzuk. Ikastetxeek ziurtatu egin behar dute ikasturte

hasieran zehaztutako ikastordua emango direla; ordezkapen sistema moduko bat izan behar dute, eta hori kalitate sistemaren bidez egiten dela azpimarratu du Mujikak. «Horrek ez du esan nahi irakasleek gaitzeko eskubiderik ez dutenik. Baina egun batean ezin badira joan, ikasleek eskola izan behar dute, eta ez zaintza bat».

Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) 1995. urtean hasi ziren Lanbide Heziketan kalitate sustatzeko programak ezartzen. Hezkuntzan Kalitatea izan zen indarrean jarri zuten lehenengo programa. Hortik abiatuta, Lanbide Heziketako ikastetxe batzuek ahalgina egin zuten kalitate ziurtagiriak eskuratzeko. 1998. urtean, ISO 9.000 ziurtagiria eskuratu zuten Lanbide Heziketako lau ikastetxeek. Ikaste-

Kalitate ziurtagiria duten EAEko ikastetxeak

- 43 ISO ziurtagiria duten ikastetxeak
- 36 ikastetxeek 400 puntu EFQM dituzte
- 5 ikastetxeek 500 puntu EFQM dituzte (3 ikastetxeek Euskalit Zilarrezko Q-a dute, 2 ikastetxeek Bruselako EFQM Urrezko Zigilua dute)
- 7 ikastetxeek ISO 14.000 ziurtagiria dute
- 13 ikastetxeek EKOSCAN ziurtagiria dute

txeak bakarrik ez, Lanbide Heziketako Sailburuordetzak besteentzat adibide izan nahi zuen, eta 2003. urtean ISO ziurtagiria eskuratu zuen.

Lehenengo esperientzia horiek orokortu egin ziren, eta 1997-98 ikasturtean SAREka programa sortu zen. Bertan, kalitate sistemaren bat ezarritazuzten ikastetxeak zeuden, sare moduko bat osatuz eta elkarri laguntzeko. Prozesu horrek bultzada handia jaso zuen, 2001. urtean Lanbide Heziketako Kalitatearen Agentzia sortu zutenean. Ikastetxeek kalitate eta autoebaluazio sistemak ezartzera animatzen ditu Kalitatearen Agentziak. Horren bitartez, dauden hutsuneak zeintzuk diren jakiten dute, gero konponbideak bilatzeko.

Kalitate sistemak, hobera

Ikastetxeetako kalitate sistemak hobera egin dute azken urteotan. Izan ere, kalitate auditorietan ikusitako kudeaketa praktika onak ezarri eta garatu dira, etengabeko prestakuntzan auditoriak egin dira, eta EFQM ereduaren oinarritutako autoebaluazioak eta memoriak egin dira. Teknologia berrien alorrean, Problem Based Learning sistema ezarri da, proiektuetan oinarritutako irakaskuntza.

Bestalde, ingurumen kudeaketa, eskola txikiak sortzen, prozesuak egindako kudeaketa, gaitasunen kudeaketa eta lidertzan eragin da. Era berean, berrikuntza eta zerbitzuetan programa bereziak ezarri dira Lanbide Heziketako ikastetxeetan: Gaitasuna Ezagutzeko Tresna, e-learning ikastaroak, etengabeko prestakuntzarako katalogoa prestatzea eta lehen enpresa sortzeko Urrats Bat programa, besteak beste. Horren emaitzak begi bistakoak dira, eta hainbat dira Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan kalitate ziurtagiriaren bat duten Lanbide Heziketako ikastetxeak.

Nahi duzun tokiraino helduko zara

Irakaskuntza dinamiko, praktikoa eta gaurkotua eskaintzen ditu Lanbide Heziketak, eta lan-merkatuaren aldek zabal-zabalik jartzen dizula. Badazu non aukeratua: 21 lanbide-erlo eta 100 heziketa-erlo (nahi guzuz gero, euskaraz). Nahi baduzu, gainera, gero unibertsitatean jarraitu dezazazu ikasten.

Izena aurretik estateko epea: ekainaren 1etik 7ra
Matrikula egiteko epea: ekainaren 30etik utailaren 6ra

LANBIDE-HEZIKETA LANERAKO HEZIKETAKO GAZTEA

Informazioa: www.euskadi.net/lanbidez

aurrera doan herria un país en marcha

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKASLEEN SAIA DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Harpidedunei banatua ▶ 2006ko ekainaren 25a, igandea ▶ IV. urtea

GAURKO EGURALDIA



AGENDA ▶

SANJOANAK

Abaltzisketa. 11:00etan, IV. Plater Tiraketa Lehiaketa herrikoentzat; 18:00etan, VII. Zaldi Karrera, Amezketatik Abaltzisketara; 18:30ean, Aimar Irigoien harri-jasotzailea, Mugerza eta Otaegi aizkolariak; gero, Etxabe anaiak; atsedendian, eskolaren aldeko txekorraren zozketa.
Belauntza. Festa ofizialak: 11:00etan, meza eta hamaiketako herrikoia; 16:00etan, haur jolasak eta puzgarriak eta txokolate-jatea; 18:00etan, toka, txinga eta bolo txapelketa; kostilla-jatea barrikotearekin, Udalak eskainita; jarraian, erromeria goizaldera arte Pagadi osaba-ilobekin.
Tolosa. 09:00etan, diana; 10:30ean, erraldi eta buruhandiak, dultzaineroak; goiz eta arratsalde, haur jaialdia, Sortzez Garbia plazan; 11:00etan, Bonberenea txarangaren irteera; 11:30ean, Toka Txapelketa; 12:00etan, Koadrilen Egunaren hasiera; ordu berean, batel estropaden finalak; 13:00etan, Ertzaintzaren Musika Banda; 16:00etan, Agustin Urkola 2. urteko txirindulari kadeteen proba; 17:00etan, Plaza Zaharretik zezen-plazara, aurkezpen paseoa; 18:00etan, zezenketa; ordu berean, *Zirko iluna* haur ikuskizuna; 19:00etan, Oriako txaranga eta Mulambo perkusio taldea; ordu berean, Trianguloan herri kirolak; 19:30ean, Los Angeles de Mexico mariachi taldearen kalejira; 23:00etan, su festak: A. Caballer; 23:30ean, Alurr dantza taldea Euskal Herria plazan; 00:00etan, Plaza Berrian Pal Keli taldea.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Tolosa. Tolosa, M. I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.
Leitza. Gimeno, A. Elbarren 52. 112.

Bihar

Tolosa. Etxebeste, J. M. Gernikako Arbola, 3. 943 65 10 40.
Leitza. Larraia, M. I. Elbarren, 95. 112.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Unai Arrieta Kortajarena.
 Bihar 3 urte egiteagatik, zorionak ebeko guztien partetik, bereziki Haritz, Jokin, Harriet, Nahia eta Ekhi.



URTE ASKOAN

Suhara Telletxea
Garmendia (Amezketia).
 Gaur 4urte. Zorionak! Muxu goxo asko, begi beltz! Zure ama puntteko ahizpa Ainitzek!

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker.
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

hitza
 agurren tartea



bihar, azken eguna

Renta 2007 Errenta

Apirilaren 24tik ekainaren 26ra
902 100 040
 www.gipuzkoa.net/ogasuna/renta

Zeu zara Gipuzkoaren motorra

Abian jartzen dugun egitasmo berri bakoitzaren atzean, erronka bakoitzaren atzean, pizten den ilusio bakoitzaren atzean, zu zaude. Zeu zarelako Gipuzkoaren motorra.



Gipuzkoako Foru Aldundia